

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### URKABUSTAIZKO UDALA

**2023ko otsailaren 22an ospatutako auzoko bilkuran egindako laburpena. Bertaratutako kideek aho batez erabaki zuten, besteak beste, lehiaketa federatuko kirola eta eskola-kirola antolatzeko diru-laguntzen deialdia 2022-2023 (134/2023 espedientea)**

BDNS(Identif.): 678049

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/678049>).

#### **Lehenengoa. Onuradunak**

Irabazi-asmorik gabeko elkarte, kultur, kirol eta/edo gizarte elkarte publiko eta/edo pribatuak eta legez eratu/erregistratuta dauden eta egoitza soziala Urkabustaizko udalerrian duten toki-erakunde txikiek jaso ahal izango dituzte diru-laguntza hauek.

#### **Bigarrena. Diruz lagun daitezkeen programak**

Kirol-denboraldiak eragindako gastuak, hala nola entrenatzailea, arbitrajeak, espazio-zelaiaren mantentze-lanak, botikina, material suntsikorra, material inbentariagarria.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Diru-laguntza horiek emateko oinarri arautzaileak honako ordenantza honetan daude jasota: kultura, euskara, kirol eta/edo gizarte arloko jarduerak eta lehiaketa federatuko/eskola-kiroleko jarduerak antolatzeko udal diru-laguntzak arautzen dituen ordenantza. Ordenantza horren testu osoa, onartutako aldaketaren ondoren, ALHAOn argitaratu zen 2010eko ekainaren 18an (67. zk.).

Diru-laguntza horiek emateko prozedura norgehiagoka-erregimenean izango da, aurkeztutako eskabideak alderatuz, deialdi honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera lehentasun-hurrenkera ezartzeko, eta irizpide horiek aplikatuz balorazio handiena lortu dutenak esleituko dira, hurrengo puntuan ezarritako mugarekin.

#### **Laugarrena. Laguntzaren zenbatekoa**

Deialdi honen arabera aurkeztutako eskabideen ondorioz ematen diren laguntzen finantzaketa 3410481000 aurrekontu-aplikazioari egotziko zaio, 2023rako aurrekontuko lehiaketa-kirol federatua eta eskola-kirola antolatzeko diru-laguntza gisa.

Deitu beharreko laguntzen gehieneko zenbatekoa 3410481000 aurrekontu-aplikazioan indarrean dagoen aurrekontu-kreditua izango da, 2023ko ekitaldiko aurrekontuarekin bat etorritik.

#### **Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea**

Urteko programen edo proiektuen eskaerak aurkezteko epea, seigarren oinarrian zehaztutako dokumentazioarekin batera, hilabetekoa izango da deialdia ALHAOn argitaratzen denetik. Epez kanpo aurkeztutako eskariak ez dira aintzakotzat hartzen.

Eskabidea eta dokumentazioa udalaren sarrera-erregistroan aurkeztuko dira, edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan adierazitako ekozein bide erabilita.

### **Seigarrena. Justifikazioa**

Diru-laguntzen erakunde onuradunek 2023ko urriaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dituzte agiriak. Hala ere, diru-laguntzaren ebazpenean memoria eta justifikazioa aurkezteko beste data bat agertu ahal izango da.

Erakunde onuradunek aurkeztu beharreko dokumentazioa.

- Diruz lagundutako proiektuaren edo programaren memoria (III.eranskina).
- Zinpeko aitortpena, beste administrazio, organismo edo erakunde publikoren batetik diru-laguntza edo laguntzarik jaso den edo ez adierazten duena. Eta jarduerak eragindako sarrera eta gastu guztien balantzea. (IV. eranskina).
- Fakturak eta ordainagiria/banku-kontuaren mugimenduen laburpena/ tiketa, eta ziurtatutako kopurua honakoaren parekoa izan behar da, gutxienez: emandako diru-laguntza, gehi erakundeak egindako ekarpena( gutxienez ehuneko 20, edo dagokion ebazpenean adierazten dena).
- Diruz lagundutako jarduera iragartzeko erabilitako programen, kartelen... aleak.

Izarra, 2023ko otsailaren 22a

*Alkatea*

*XABIER ÁLVAREZ DE ARCAYA FERNÁNDEZ DE LANDA*